



ERLEZAINAK

Begiak ireki orduko, eguzki-izpiak pertsianen artetik sartzen zirela ohartu eta salto batez zutitu nintzen.

—Argitu du eguna, Erik! —esan nuen neba astinduz.

Oso urduri nengoen. Ostiral hura ez zen edonolakoa izango.

—Zergatik hain goiz? Gaur ez dugu eskolarik, utzi lo egiten.

—Erleak, Erik! Ez zara gogoratzen?

Nebak begiak igurtzi zituen nagiak atera aurretik. Hartz bat zirudien, negu osoa lo eman ondoren esnatzen.

—Egia da, jantziak! —egin zuen oihu, eta berehala jaiki zen.



Azkenean iritsia zen Olentzerok ekarritako erlezain-jantziak erabiltzeko eguna. Gure aitak erabiltzen duena bezalakoxeak ziren, baina gure neurrikoak.

Akaso ez dakizue zertaz ari naizen... Kontua da gure aita, Jon, erlezaina dela. Erlauntz pila bat ditu. Erleek egindako ezta biltzen egiten du lan. Halako zeregin bat ezin du babesik gabe egin, erleek ziztatu egin lezakete-eta. Horregatik erabiltzen du jantzi berezi bat, erleetatik babesten duena. Eta azkenean bagenuen guk ere aitari laguntzeko aukera.

—Dagoeneko esna? —galdetu zigun aitak burua gure logelara sartuz—. Hain azkarrak bazinete eskola-egunetan ere...

—Non daude jantziak?

Aita barrez hasi zen.

—Lehenik, zatozte gosaltzera. Erlezain-lana ezin da tripa-hutsik egin.

Erikek eta biok gogaituta begiratu genion elkarri. Erlauntzetara joateko irrikaz geunden. Baina sukaldetik zetorren ogi txigortuaren usai-



nak berehala piztu zigun jateko gogoa.

—Egun on, erlezainak —agurtu gintuen amak eskuetan kafe-katilua zuela.

—Zu ere bazatoz? —galdetu nion laranja-zukua hurrupa batez edan ondoren.

Amak, pena aurpegia jarri, eta ezetz egin zuen buruaz.

—Oso gustura joango nintzateke, baina lanera joan beharra dut. Gaur ez dut jai.

—Ze kaka —kexatu zen Erik.

—Bihar surf-txapelketa daukat. Etorriko zarete ni ikustera? —galdetu zigun amak.

—Noski! —esan genuen biok batera.

Tostadak oso goxoak zeuden, batez ere ezti pixka batez igurtzita. Erikek nahiago du marmelada. Marrubizkoa du gogokoen, baina niri gehiago gustatzen zait eztia.

—Hemen dituzue zuen erlezain-jantziak —

esan zigun aitak gosaltzen bukatu bezain laster.

Zuri-zuriak ziren, hodeiak bezain zuriak, eta kapelutik sare bat erortzen zen, aurpegi osoa estaltzen ziguna.


—Astronauta bat dirudizu —esan nion Eriki.

—Zuk ere bai!

Nire neba oinkada luzez hasi zen ibiltzen, ilargian balebil bezala. Aita eta biok barrez hasi ginen, eta neba imitatuz ekin genion erlauntzetarako bideari. Erlauntzak erreka baten ondoan zeuden, haritz batzuen itzalpean, eta inguruan zelai pila bat zabaltzen ziren, kolore guztietako lorez beteak. Nonahi entzun zitekeen erleen burrunba.

—Zer da hau? Nork botatzen du zaborra hemen? —esan nuen





plastikozko botila bat jasotzeko makurtzen nintzen bitartean. Beste batzuk ere baziren inguruan, erlauntzetatik oso gertu.

Aitak ez ukitzeko esan zidan.

—Ez da zaborra, Asiako liztorrak ehizatzekeo tranpak baizik. Neronek prestatzen ditut ahabi-jarabez.

—Liztor handi horiek?


—Bai, horiexek. Orain dela urte gutxi iritsi ziren Asiatik, hutsegitez ekarri zituen itsasontzi batean, eta geroztik oso arriskutsuak dira gure erleentzat.

—Zergatik? —Nik ez nuen ezer ulertzen.

—Jan egiten dituztelako. Erlauntzetara sartu eta ez dute atsedetik izaten topatzen dituzten erle guztiak irentsi arte. Horregatik ehizatu behar izaten ditugu.

Erik belar arteko botiletako bati begira geratu zen.

—Eta jarabea jarriz ehizatzen dituzu?



Aitak baietz egin zuen buruaz. Ia ez genion aurpegia ikusten jantziaren sarearen atzean.

—Tranpan sartzen dira, eta gero ez dakite irteten —azaldu zigun lehenengo erlauntzera hurbildu aurretik—. Ireki egingo dut. Kontuz!

Estalkia ireki aurretik, keztagailu batez kea bota zuen erlauntz barrura.

—Hau erleak lelotzeko da. Horrela ez dira hain urduri jartzen zirikatzen ditugunean.

Gero, erlauntza leunki ireki, eta barrura begiratu zuen. Nik berdin egin nuen, baina Erik urrundu egin zen salto batez.

—Ziur zaude ez digutela zizt egingo?

—Tira, ez izan hain beldurtia. Jantzi horrekin, ezin dizute ezer egin —esan zion aitak eskua sorbaldan jartzen ziolarik.

Nik ezin nuen ahoa ireki ere egin. Liluratuta nengoen han barruan zegoenari begira. Milaka eta milaka erle etengabe mugitzen. Sinestezina



zen. Edonora begiratuta ere, ez zen erleak bes-
terik ikusten. Batzuk gure inguruan zebiltzan
jira-biraka hegan, baina gehienak abaraske-
tan pilatzen ziren. Aitak haietako bat hartu eta
erakutsi egin zigun.

—Ikusten? Eskuan daukadan hau abaraska
bat da. Hemen jartzen ditu arrautzak erlamak.
Abaraska honetako gelaxka bakoitzean, eta asko
eta asko daude, arrautza bat erruten du. Gero,
erlauntzeko gainerako erleek polena bildu eta
ezti bihurtzen dute, erle jaioberriak elikatzeko.

—Zerez eginak daude gelaxkak? —galdetu zuen
Erikek mesfidati hurbiltzen zitzaigun bitartean.

—Argizariz. Gero ezitik bereiziko dugu eta
kandelak egiteko balioko digu.

Kontu handiz, abaraskak ateratzeari ekin
genion. Erleak urduri jartzen ziren, eta batzuk
aurpegia babesten zigun saretxoan pausatzen
ziren. Egia esan, beldur pixka bat ematen zuen
erleak hain hurbil ikusteak.

—Ai! Ziztatu egin naute! —oihukatu zuen Eri-
kek bat-batean.

Korrika hasi zen alde batera eta bestera,
bizkarrean kolpeak emanaz. Barregura sartu

zitzaidan, baina eutsi egin nion. Niri ez litzaidake
gustatuko inork iseka egitea xomorro batek
ziztatuko banindu.

—Ez mugitu —ohartarazi zion aitak—. Urduri
jartzen dituzu.

—Min ematen dit! —kexatu zen Erik hortzak
estutuz.

Limoi bati kosk egitean jarri ohi den aurpegia
zeukan.

Aitak besotik heldu zion, eta erlauntzetatik
urrun zegoen leku batera eraman zuen. Jantzia
kentzen lagundu, eta krema pixka bat eman
zion ziztadaren gainean.

—Lasai. Ez da ezer. Batzuetan, erle batek
jantzi barrura sartzea lortu eta zizt egiten du.
Berehala joango zaizu mina.

—Min handia ematen dit! Zergatik dira hain
gaiztoak? —kexatu zen Erik.

—Ez dira gaiztoak. Urduri jartzen direnean
soilik ziztatzen dute. Zuri gustatuko al litzai-
zuke inork zure logelako sabaia irekitzea eta
zure gauzetan muturra sartzen hastea?



Erikek hasperen egin zuen.

—Ez dut berriro hurbildu nahi —esan zuen harkaitz batean eseriz—. Hemendik ikusiko zaituztet.

Aitak hasperen egin zuen.

—Tira, goazen etxera. Orain eztia argizaritik bereizi eta potoetan sartuko dut. Zer iruditzen zaizue bihar nirekin etortzen bazarete azokara eztia saltzera?

—Azokara? Baaai! —oihukatu genuen Erikek eta biok batera.

Artean ere aupaka ari ginen surf-txapelketaz oroitu ginenean. Amari pena emango zion gu berarekin ez joateak, baina ulertuko zuen. Azken batean, surf-egunak askotan ziren, eta merkatu-egunak aldiz oso noizean behin.

—Eta eraman dezakegu lagun bat?

—Jakina. Eta gainera han geratuko gara lotan, azokak bi egun irauten du-eta —erabaki zuen aitak.

Erik eta biok aupaka eta iufaka hasi ginen. Gure bizitzako astebururik onena izango zen. Azoka, gaua kanpoan... Eta gainera gure lagunekin. Etxeratzeke irrikaz geunden, telefonoa hartu eta lagunak gonbidatzeko.



EZTIZKO BIZKOTXOA

—Nork lagundu nahi dit eztizko bizkotxoak egiten? —galdetu zuen amamak burua logelan sartuz.

Ez genuen bitan pentsatu behar izan. Salto batez zutitu ginen biok. Ikaragarri gustatzen zaigu gozogintzan aritzea: arrautzak irabiatu, irina gehitu, eztia bota, hatza sartu ona ote dagoen probatzeko... Eta, gainera, amamak prestatzen duen eztizko bizkotxo munduko onena da. Nola esango genuen ezetz?

—Azkar asko konbentzitu zaituzte —esan zizgun amak, isekaz, sukaldean agertu ginenean—. Jantzi mantalak. Ondo ezagutzen zaituztet, eta ziur naiz eztiz estalita bukatuko duzuela.

—Ea ba... Lehenik, arrautzak —esan zuen